#05

# AEBKO ETA EUROPAKO GIZARTE ZIENTZIA KONPARATUEN EGUNGO EGOERAREN SINOPSIA

**Steven Tötösy de Zepetnek**
*University of Halle-Wittenberg & Purdue University Press*
**Louise O. Vasvári**
*Stony Brook University & New York University*

clcweb@purdue.edu

**Aipatzeko gomendioa ||** TÖTÖSY, Steven & VASVÁRI, Louise O. (2011): "AEBko eta Europako gizarte zientzia konparatuen egungo egoeraren sinopsia" [artikulua linean], *452ºF. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 5, 13-31, [Kontsulta data: dd/mm/aa], < http://www.452f.com/index.php/eu/totosy-vasvari.html >
**Ilustrazioa ||** Mar Olivé
**Itzulpena ||** Mikel Babiano
**Artikulua ||** Jasota | Argitaratuta: 07/2011
**Lizentzia ||** 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe



**Laburpena ||** Artikulu hau mendebaldeko hemisferioan gizarte zientzia konparatuen egoeraren deskribapena da. Horretarako, arreta literatura konparatua diziplinan eta munduko literatura, ikasketa kulturalak eta ikasketa kultural konparatuen alorretan jarriko du. Aipatutako arloetako eztabaida laburren bitartez, autoreek literaturaren eta kulturaren ikerketa sozialki adierazgarria den ekintza bilakatzea proposatuko dute. Egungo ikerle lanean gizarte zientzietako azterlariek testuinguruan eta ebidentzietan oinarritutako lanera jo behar dute, gizarte zientzietako graduatuak lan-merkaturatzeko arreta eta erantzukizuna albo batera utzi gabe. Horrek ez du esan nahi literatura ikerketa tradizionalari (testuaren irakurketa zehatzari bezala) balio gutxiago emango zaionik. Helburua biak maila berean jorratzea izango da. Autoreen azken analisia ikasketa kultural konparatuak hurbilketa konparatzaileen printzipioetan, eta diziplina-artekotasunarekin landutako literatura konparatuan, munduko literaturan eta ikasketa kulturaletan oinarritu beharko lukeela da. Ondorioz, diziplina horrek media berrien teknologien abantailak erabiltzearekin presentzia globala eta gizarte eragina lor lezake.

**Gako-hitzak ||** Ikasketa Kultural Konparatuak | Literatura Konparatua | Diziplina-artekotasuna | Gizarte Zientzia Konparatuak | Munduko Literatura | Ikasketa Kulturalak.

**Abstract ||** This article is a description of the situation of comparative humanities in the Western hemisphere with attention to the discipline of comparative literature and the fields of world literature, cultural studies, and comparative cultural studies. With brief discussions of the said fields, the authors propose that to make the study of literature and culture as a socially relevant activity of scholarship today humanities scholars must turn to contextual and evidence-based work parallel with attention to and responsibility with regard to humanities graduates' employment. This does not mean that the traditional study of literature including close-text study would be relegated to lesser value; rather, the objective ought to be to perform both and in a parallel fashion. Their final analysis is that comparative cultural studies as based on tenets of the comparative approach and thought in comparative literature, world literature, and cultural studies practiced in interdisciplinarity, and employing the advantages of new media technology could achieve a global presence and social relevance of which comparative humanities would prove a relevant component.

**Keywords ||** Comparative Cultural Studies | Comparative Literature | Interdisciplinarity | Comparative Humanities | World Literature | Cultural Studies.

## 0. Sarrera

Diziplina ezberdinetako ikerketa-sailetan konparazioa kontuan hartzeko eta aplikatzeko joera oso zabalduta egon da eta dago gaur egun ere. Horren aldeko argudioen artean, Marcel Detienne historialariak giza eta gizarte-zientzia konparatuaren aldeko apustua azpimarratzen du bere *Comparing the Incomparable*n (2008: 36-39; *Comparer l'incomparable* [2000] lanean; ikus, halaber, —beste historialari bat— George M. Fredrickson's *The Comparative Imagination*). Literatura konparatuaren diziplinari dagokionez, gauza jakina da gai horri buruz historian zehar segurtasun eza eta eztabaidak egon direla, haren definizio eta testuinguru teoriko zein metodologia gabezia direla-eta. Hutsune horiek —XIX. mendean sortu zenetik diziplinan ageri direnak— literatura aztertu ahal izateko diziplinak beste diziplina batzuetatik mailegatu izanaren emaitza dira, besteak beste. Presentzia instituzionalari dagokionez, diziplina AEBn eta Europan zabaldu zen batik bat (bigarrenean maila txikiagoan, ordea) eta bietan ere geroz eta pisu eskasagoa izan du, ingeleseko sailetan literaturarekin eta kulturarekin lotutako teoria bat izateko interesa piztu baita eta literatura konparatuek eurozentrismoaren alde jo baitute (ikus adib. Pireddu; Tötösy de Zepetnek, *Comparative Literature*, “The New Humanities”; Witt). Literatura konparatuaren beste akatsetako bat bere egitura da (teorikoa eta aplikatua), guztizkoaren paradigmak diziplina eta ikasbide askotan indar berezia irabazi duen garai honetan literatura nazionaletan oinarritutakoa. Are gehiago, 1980ko hamarkadatik hona diziplina presiopean egon da ikasketa kulturalei dagokienez duen baliotasun instituzionala justifikatzeko. Bilakaera hori gora behera, Haun Saussy-k honakoa dio AEBri buruz ari dela: “Comparative Literature has, in a sense, won its battles. It has never been better received in the American university. […] Our conclusions have become other people's assumptions” (2006: 3; ikus, halaber, Finney). Saussyren azterketaren arabera, literatura konparatuaren helburu eta arloak indarra irabazi dute literatura ikerketan. Hori behar bezala arrazoituta dago eta oso positiboa da, baina ez ditu diziplinak AEBn eta Europan dituen muga instituzionalak kontuan hartzen. Status quo berriaren ikuspegi baikor hori ez dator bat beste aditu batzuen iritziarekin: Susan Bassnett-ek *Introduction to Comparative Literature* lanean diziplina hilda dagoela azpimarratzen du (1993: 3), Gayatri Chakravorty Spivak-ek antzekoa iradokitzen du *Death of a Discipline* bere liburuaren izenburuaren bitartez (hots, literatura konparatua), eta beste hainbeste ageri da *Routledge Dictionary of Literary Terms* (GMH)-ko “Comparative Literature” sarrerari dagokion prognosi negatiboan. Aurkakoak diren bi ikuspuntu horiek —literatura konparatua literatura ikerketan nagusitu dela eta diziplina hilda dagoela— AEBri eta Europari dagozkio eta, diziplinaren eduki intelektualaren zein estatus instituzionalaren arabera, biak ala biak adierazpen zuzenak izan daitezkeen bezala, Europan eta AEBn

zentratuta jarraitzen dute eta ez dute kontuan hartzen diziplinak Asian (kontinenteko Txina, Korea, India, mundu arabiarra) eta Latinoamerikan duen agerraldia eta ezta Grezia Italia, Portugal, Espainia eta beste herrialde batzuetan gertatu diren aurrerapausoak (horri buruz gehiago jakiteko ikus Tötösy de Zepetnek eta Mukherjee) ere. Aurrerantzean, giza zientzia konparatuaren mendebaldeko egoeraren sinopsia aurkezte aldera, literatura konparatuaren diziplinaren eta munduko literatura, ikasketa kulturalak eta ikasketa kultural konparatuen arloen deskribapen laburrak eskainiko ditugu, italiarrezko ikasketa kulturalei buruzko eztabaida labur batekin batera.

## 1. Literatura konparatuaren diziplina eta munduko literaturaren kontzeptua

Literatura konparatuaren diziplinak munduko literaturaren arloari dagokionez duen egoerari buruz hitz egin aurretik, honela definituko dugu literatura konparatua:

> The discipline of Comparative Literature is in toto a method in the study of literature in at least two ways. First, Comparative Literatures means the knowledge of more than one national language and literature, and/or it means the knowledge and application of other disciplines in and for the study of literature and second, Comparative Literature has an ideology of inclusion of the Other, be that a marginal literature in its several meanings of marginality, a genre, various text types, etc. […] Comparative Literature has intrinsically a content and form, which facilitate the cross-cultural and interdisciplinary study of literature and it has a history that substantiated this content and form. Predicated on the borrowing of methods from other disciplines and on the application of the appropriated method to areas of study that single-language literary study more often than not tends to neglect, the discipline is difficult to define because thus it is fragmented and pluralistic (Tötösy de Zepetnek, 1998: 13; literatura konparatuarekin lotutako liburu eta artikuluen bibliografia nahi izanez gero, ikus Tötösy de Zepetnek, “Shortlist of [Text]books in Comparative Literature,” “Bibliography for Work in Comparative Literature and Culture”).

Munduko literaturen kontzeptuak Johann Wolfgang von Goetheren *Weltliteratur* proposamenean du bere jatorria. Goethek, beste ideia batzuen artean, itzulpenaren esangura eta garrantzia azpimarratu zituen eta literaturaren esanahi nazionalaren aurka agertu zen (Goetheren kontzeptuaren esangura gaur egun nola ulertzen dugun iradokitzen diguten adibideak aztertzeko ikus, esate baterako, Birus; Sturm-Trigonakis). Goetheren proposamenak instituzioetan (munduko literaturari buruzko unibertsitateko sailetan) egitura gisa arrakastarik izan ez zuen arren, kontzeptua bera —gutxienez *in nomine*— estandar bat izan da literatura konparatuaren diziplinan gerturapen intelektual eta pedagogiko gisa, baina, praktikan,

eurozentrismoa eta gerturapen nazionala eragin ditu. Azken urteotan, literatura konparatuaren aipatu defizitei aurre egiteko, apika, —eurozentrismoa, literatura eta kultura teoriatik urruntzea eta gerturapen nazionalaren pisua— munduko literaturaren kontzeptuak interes berria piztu du, ez bakarrik gai teoriko gisa, baizik eta baita egitura instituzional gisa ere, batik bat AEBko eta Kanadako unibertsitateko sailetan, eta ikerketa-liburu asko gerturapen horretan oinarrituta argitaratu dira (ikus, adib. Damrosch; Gallagher; Lawall; Pizer; Prendergast, Christopher; Simonsen eta Stougard-Nielsen; Sturm-Trigonakis). AEBn eta Kanadan „munduko literatura“ izendatutako sail eta katedrak finkatzearen aldeko mugimendu bat dagoen arren, ikusteke dago kontzeptua unibertsitate titulua ziurtatuko duen oinarri instituzionaleko unitate gisa garatuko den. Munduko literaturari buruzko ikastaroak edonon topa ditzakegun arren, ikastaro horien sail gutxi eta erdibidekoak soilik daude. Mendebaldean literatura konparatuak unibertsitate titulua ziurtatuko duen arlo gisa duen presentzia eskasari erreparatu gabe, munduko literaturaren edota ikasketa kultural konparatuen (ikus behean) presentzia instituzional eta administratiboa eztabaidagarria da gaur egun ere. Era berean, literatura konparatuaren, munduko literaturaren, ikasketa kulturalen eta ikasketa kultural konparatuen esangura intelektualak erakargarria izaten jarraitzen du globalizazioaren eta haren mundu mailako eraginaren ondorioz. Honakoa da, hortaz, literatura konparatutik at, munduko literaturaren definizioetako bat: “World literature is not an infinite, ungraspable canon of works but rather a mode of circulation and of reading, a mode that is as applicable to individual works as to bodies of material, available for reading established classics and new discoveries alike” (Damrosch, 2003: 5; ikus, halaber, Pizer munduko literaturari buruzko eztabaida luzeago baten berri izateko). Era berean, Damroschek munduko literaturari buruz duen kontzeptua, literatura ekoizpena, argitalpena eta zirkulazioa barne hartzen dituena, Siegfried J. Schmidt-ek *Empirische Literaturwissenschaft* lanean proposatzen eta aplikatzen duen literaturarekiko mikrosistema gerturapenaren eta Itamar Even-Zohar-en polisistema teoriaren antzekoa da (ikus adib. Schmidt, “From Literary Studies”; Even-Zohar).

Literatura konparatua, diziplina gisa, mantendu egin da, baina arazo handiak ditu presentzia instituzionalari dagokionez, batik bat, eta AEBn, Kanadan, Australian, (Ingalaterran ere, diziplinak orain arte presentzia handirik izan ez duen arren, interes berezia erakarri du azkenaldian) Latinoamerikan eta Europako zenbait herrialdetan arlo gisa finkatu da. Hala eta guztiz ere, goian iradoki bezala, esanguratsua da diziplinaren kontzeptua eta presentzia instituzionala eskualde “periferiko” izendaturikoetan (Europako herrialdeak aipatzearren Espainia, Portugal, Grezia etab. ) garatzen ari direla. Zentzu honetan, uste dugu eskualde “periferiko” horietan nabari diren lorpenak neurtzeko “garai” gerturapenarekin tentuz aritu beharko genukeela.

Beste hitz batzuetan, aurrerapen horiek “erdieste” gisa aztertzeko proposamena, esate baterako, modernitatea Europako eskualde “periferikoetan” (eta Europan bertan, mendebaldean lehenengo eta ekialdean gero) agertu izanaren antzekoa da. Ikuspegi hori, aipatu kontzeptu eurozentrikoan eta literatura konparatuaren praktikan oinarritutakoa, ez litzateke harritzekoa. Haatik, diziplinaren aurrerakuntzak globalizazioaren eraginaren eta, hortaz, egitura sofistikatu eta praktika esanguratsu baten ondorioa direla uste dugu guk (horri buruz gehiago jakiteko ikus, batik bat, Krishnaswamy; ikus, halaber, Caruth eta Culler).

## 2. Ikasketa kulturalen arloa

Ikasketa kulturala ikerketa-sailen hibrido gisakoa da, hots, ez dago diziplina espezifiko eta finkatu baten baitan. Aitzitik, giza zientzia kritikoaren eta gizarte zientzien teorietan oinarrituta dago eta, berezko diziplina teoria eta metodologia bateratzailea izan beharrean, gerturapen eta metodologia teoriko asko biltzen ditu. Diziplina tradizionaletan gertatzen ez den bezala, ikasketa kulturalen indarra heterogeneotasun teorikoan, aberastasunean, aniztasunean eta mugen malgutasunean datza, hain zuzen ere. Giza eta gizarte-zientzien mugak berrezartzea du helburu, horretarako paradigma berrietan oinarrituz, maila teoriko zein praktikoan. Metodo aniztasuna dela eta, ikasketa kulturala ideia metadiziplinario gisa defini genezake, beharbada, diziplina ezberdinen artekoa eta diziplina bateratu bakarra barne hartzen ez duena. Inter-, multi-, kontra-edota anti-diziplina gisa ere defini genezake, haren oinarri eta analisi modua gai eta metodo konpartituetan oinarritzen baita, gizarte ezberdinen fenomeno kulturalaren ikerketa kritikoa egiteko diziplina tradizional eta berri asko (ber)konbinatzen dituelako, testuinguru sozial eta kulturalari erreparatuta eta kulturaren berezko nozioaren metamorfosia ulertzeko asmoz beti ere. Lan kanonikoak zein informazio kuantitatiboak lehenetsi eta autoritate ildoak berrezarri ordez, kultura ikerketak kulturari eta kultura produktuei buruzko lana barne hartzen du eta ezagutza modu dominanteen eraginez ez esandakoari, ezabatutakoari eta ezkutatutakoari ahotsa ematea du helburu, testu, praktika esanguratsu eta diziplina tradizionaletako teoriekin lotuta. Ikasketa kulturalik onena kritika kulturala da, eklektizismoaren bertuteak goraipatzen dituena eta gerturapen eta metodologia teorikoen bidez kulturaren ikuspuntu holistiko eta demokratikoa kontuan hartzen duena. Bere helburua forma kulturalen eta kultura eta gizartearen eta politikaren arteko lotura esplizituak sortzea da, azterketa analitiko hutsetik harago aldaketa sustatzeko. Ikasketa kulturala oso eztabaidagarria da, hasiera batean, behinik behin, muturreko konpromiso politikoa eta aldaketa sozial praktikoa aldarrikatzen baitzituen. Hortaz, “objektiboa” izatea helburu duen

ikerketa filologiko tradizionalean gertatzen ez den bezala, ikasketa kulturala esplizituki ideologikoa da. Azken bertsioen arabera ikasketa kulturalak pisu politikoa galdu duen arren, erronka bat izaten jarraitzen du diziplina akademiko tradizionalen elitismo atrofiaturako eta, neurri zabalagoan, botere egitura hegemonikoetarako. Ikasketa kulturaleko "kultura" terminoa bizitzaren eguneroko ezaugarriak aztertzeko kontzeptu antropologiko eta narratiboa da eta "kultura"-ren ikuspuntu estetiko-testuala eta hierarkikoa desegitea du helburu. Aldi berean, horrek esan nahi du ikasketa kulturala tradizionala, kanonikoa edota hegemonikoa den ororen ikerketan aplika daitekeela. Ikasketa kulturalak finkatutako ikerketa-eztabaidek baino ezagutza esanguratsu handiagoa eragin dezake eguneroko bizitza ulertzeko gertutasunari dagokionez, baztertutako kulturak eta herri kulturak ikertzeko, esate baterako, edota audientziaren rol kreatiboarekin lotuta kultura eta komunikabideen interesa ikertzeko (ikus adib. Bathrick; Berubé; Franco; Grossberg; Grossberg, Nelson, Treichler; Hall; McNeil; Miller; Milner; Prow; Rojek; kultura ikerketako metodologiari buruz gehiago jakiteko ikus adib. Cauldry; Ferguson eta Golding; Lee eta Poynton; Lee, Richard; White eta Schwoch; McCarthy, Durham, Engel, Filmer, Giardina, Lalagreca).

Ikasketa kulturalek giza eta gizarte-zientzien sailetan finkatutako zenbait diziplinekin zerikusia izan dezakete edota horien baitan landu daitezke: literatura ikasketak, literaturaren teoria, kulturaren soziologia, gizarte teoria, komunikabide ikasketak, komunikazio ikasketak, antropologia kulturala, historia/geografia kulturala, etnografia, soziolinguistika, itzulpen ikasketak, folklorea, filosofia, zuzenbidea, politika kulturalen ikasketak, pedagogia, historia, museo ikasketak, audientzia ikasketak, artearen historia eta kritika, zientzia politikoak, genero ikasketak, etab. Edukiei dagokienez, ikasketa kulturalek gai asko barne hartzen dituzte: generoa eta sexualitatea, nortasun nazional eta (post)nazionalak, kolonialismoa eta postkolonialismoa, arraza eta jatorri etnikoa, herri kultura, sukjektibotasun kulturalen sorrera, kontsumitzaileen kultura, zientzia eta ekologia, nortasun politikak, estetiken eta diziplinartasunaren politikak, instituzio kulturalak, eztabaida eta testualitatea, gizarte ezberdinetako (sub)kultura(k), herri kultura eta haren audientzia, aro postmoderno bateko kultura (globala), estetiken politikak, kultura eta haren instituzioak, hizkuntza, hiriaren, zientziaren, kulturaren eta ekosistemen kultura politikak, ikasketa postkolonialak, feminismoaren, sexuaren ikasketak eta *queer* ikasketak, ikasketa etnikoak, (im)migrazio ikasketak, hiri ikasketak, argitaratzea, gai metaprofesionalak (lan merkatua, argitaratze akademikoa, lanpostua etab).

Hausnarketaren presentziaren eta presentzia instituzionalaren testuinguruari erreparatuz gero, Erresuma Batuko ikasketa kulturala 1950eko hamarkadan jaio zen Marxen oinarritutako kulturen

analisi kritikoarekin, Richard Hoggart, Raymond Williams, Edward P. Thompson, Stuart Hall eta beste batzuen eskutik, Birminghameko Centre for Contemporary Cultural Studies zentroan. Hark politikarekin hertsiki lotutako ikasketa jakin batzuk sustatu zituen (horietako batzuk geroago liburuetan bildu zituzten) komunikabideei eta herri kulturari buruz. Argitalpen zaharrenek "ingeles literatura" izendatu ohi dugun literatura ekoizpena zalantzan jarri zuten, industria kulturalak komunikabideetan duen eragina, eta proposatu zuen merezi zuela herri eta langile-klasearen lanak eta hartzaileak aztertzea. Erresuma Handiko ikasketa kulturalak esportazioa jasan zuen, Thatcherren gobernupean baztertutako eta AEBn eta beste herrialde anglofono batzuetan irakaskuntza-postuak lortu zituzten britoi deserriratuak beste leku batzuetara joan zirenean. Beraz, ikasketa kulturalak ingelez mintzatzen diren herrialdeetan izan zuen arrakasta handiena, Britainia Handiko, Ipar Amerikako (AEB eta Kanada) eta Australia eta Zeelanda Berriko ikasketa kulturalekin batera (ikus adib.  Turner; Frow eta Morris; Prow; McNaughton eta Newton). Pentsamolde ezberdineko eskola paralelo bat sortu zen Frankfurten (Alemania), Marxen analisi kritikoan oinarrituta, Erresuma Batukoarekiko ezberdintasun bat zuena: Birminghameko eskolak herri kultura aztertzen zuen bezala, Frankfurteko eskolak goi kulturaren garrantzia goraipatu zuen, herri kulturaren eraginaren aurkakoa zen eta, batik bat, soziologia antipositibistan, psikologian eta filosofia existentzialean oinarritu zen (adib. Theodor W. Adorno, Jürgen Habermas, Max Horkheimer, Leo Löwenthal, Herbert Marcuse). Kultura aztertzeko beste modu bat *Kulturwissenschaft* da —1920ko hamarkadatik aurrera Alemanian garatu eta XIX. mendeko pentsamoldean ere neurri handi batean errotu zena—, honako sailetan oinarritutakoa: filosofia eta kultura (adib. Georg Simmel eta Ernst Cassirer), kulturaren historia (adib. Wilhelm Dilthey), antropologia historiko eta filosofikoa (adib. Johann Friedrich Blumenbach), soziologia (adib. Max Weber), eta artearen historia (adib. Aby Warburg). 1980ko hamarkadatik hona *Kulturwissenschaft*-ek ikasketa kulturalen zenbait ezaugarri bereganatu dituen arren, Alemaniako pentsamolde historiko eta filosofikoan errotutako diziplina izaten jarraitzen du eta historian zehar nahiz gaur egungo praktikan ezberdina da ikasketa kulturalen aldean (ikus adib. Böhme eta Scherpe; Böhme, Matussek, Müller; Kittler).

Ikasketa kulturalak zatiketa eta bilakaera esaguratsua jasaten jarraitu du, globalizazioa, arrazaren analisi kritikoa, ikerketa etnografikoa eta genero ikerketak bezalako arloetan, besteak beste. Aipatu behar dugu ikasketa kulturalen ezaugarri eta ikuspuntu ugari literatura konparatuaren diziplinan eskura egon direla eta bertan ageri zirela/direla. Ikasketa kulturaletako gai eta kontu asko ikasketa kulturalen igoeraren aurretik ere aztertu zituzten eta gaur egun ere gertatzen dira. AEBn, ingeleseko sailetan irabazi duen nagusitasuna ahaztu gabe, ikasketa kulturala historia, soziologia, antropologia eta giza eta

gizarte-zientzietako beste arlo batzuetan ere geroz eta ohikoagoa da. Bestetik, ikasketa kulturalak eragina izan du Asiako hegoekialdean, bereziki Taiwanen eta Hego Korean, jarraitzaile asko hara itzuli baitziren herrialde anglofonoetan ikasi ondoren. Txinako ikasketa kulturalak ez du inplikazio nazionalistiko eta politikoekin zerikusirik izan nahi; horrela, "txinatartasuna" (itsasoaren bestaldeko txinatarrak kontuan hartuta) bultzatzen du erreferentzia puntu kultural bezala erreferentzia etniko, nazional edo politikoa baino areago, muga geopolitikoak gainditu nahi dituen "kulturalismo txinatar" moduko bat (ikus Zhang; Cheng, Wang, Tötösy de Zepetnek). Ikasketa kulturalak mundu guztian izan duen eragina ingelesaren hegemoniari eta hark gaur egun *lingua franca* gisa duen estatusari, AEBen hegemoniari eta herri kulturaren zabalkundeari zor zaio neurri batean. Azken horrek AEBn Birmingham School-eko ikuspuntu teorikoak sustatzeko eta haiek AEBko kulturan aplikatzeko hasierako bultzada eman zuen.

Europako ikasketa kulturalei erreparatuz gero, Paul Moore-k pentsatzen du eurozentrismoak jasotako balio kulturalari buruzko kritika oztopatzen duela, uste (nostalgiko) horren arabera Europa "goi" kulturaren jaioterria baita, gerora Europako auto-enuntziazioko balio kritiko bilakatuko zen defentsa kontserbadorea. Ildo beretik, Roman Horak-ek ikasketa kulturalen eta herri kulturaren aurkako aurreiritzi bera identifikatzen du Alemanian eta Austrian, batik bat, eta Frankfurteko Eskolaren eragina, beste faktore batzuen artean, herriarekiko beldur eta erdeinuarekin batera, azken horiek AEBko kulturarekiko eta "amerikartzeko" beldurrarekin hertsiki lotuta baitaude. Nolanahi ere, ikasketa kulturalen eragina agerikoa da (ikasketa kulturalekin lotutako argitalpen gehienak AEBn, Kanadan eta Australian agertzen diren arren, eta hori da Oxford University Press-ek ikasketa kultural espainiarrari, alemaniarrari, frantziarrari, italiarrari eta errusiarrari buruz argitaratutako liburukietako artikuluen kasua. Artikuluen autoreak ikasketa kultural ezaguterrazen dimentsioa nazio ezberdinetako ikerketa-sailetako historia kultural eta tradizio finkatuetan garatzeko eginkizunaren aniztasuna azpimarratzen duen sarrera batekin hasten dira (ikus adib. Graham eta Labanyi; Denham, Kacandes, eta Petropoulos; Forbes eta Kelly; Kelly eta Shepherd; Kennedy; ikus, halaber, Le Hir eta Strand; Reynolds eta Kidd; Jordan eta Morgan-Tamosunas;). Interesgarria da jakitea Europan Frantzia dela —Europako erdialdearekin eta ekialdearekin batera, behean adierazi bezala— ikasketa kulturalek garrantzia gutxien duten lekua (ikus adib. Chalard-Fillaudeau).

Marjorie Ferguson eta Peter Golding-ek, *Cultural Studies in Question* liburukiaren sarreran, kritikatzen dute inperio sobietar zaharra desegin zenetik ez direla enpirikoki aztertu politika, ekonomia eta komunikabideen arloko politika nazional eta globalen egiturazko aldaketak, globalizazioaren ondorioak eta demokratizazio prozesua (ikuspuntu hori bat dator Tötösy de Zepetnek-en ikasketa kultural

konparatuen molde eta metodologiarekin —“kostestuala” eta “enpirikoa”— ikus behean). Liburuki berean, John D.H. Downing-ek proposatzen du komenigarria dela Europako erdialdean eta ekialdean eta Errusian trantsizio ekonomiko, politiko eta kulturala argitzeko ikasketa kulturalen gaitasuna ikertzea eta, alderantziz, trantsizio horien inplikazioak aztertzea, adituek ikasketa kulturalen erabilgarritasuna ebaluatzeko bitarteko ezin hobea baitira. Diziplinek gizartea eta boterea, gatazka eta aldaketa komunikazioaren analisian integratu beharko lituzketela azpimarratzen du eta, batik bat, beharrezkoa dela eliteetatik at beste agente batzuen garrantziari kasu egitea, hots, barruko presioetatik abiatuta aldaketa politikoa eragin duen herri kulturaren rola aztertzea. Bestetik, Dowlingek dio Hego Afrika, Hego Korea, Taiwan, Latinoamerika eta Hego Europak antzeko trantsizioak izan dituztela eta konparatzeko unean kontuan hartu beharko genituzkeela. *Cultural Discourse in Taiwan* liburukian, autoreek azpimarratzen dute Taiwan —bere lehenaldi koloniala eta ondare kulturalaren aniztasuna direla-eta— “mendebaldea eta ekialdea modu espezifiko eta zoragarrian bateratzeko prozesu kulturalen dinamiken” erakusgarri dela (Cheng, Wang, Tötösy de Zepetnek 1). Hego Koreari dagokionez, Myungkoo Kang-ek “East Asian Modernities” bere artikuluan ikasketa kulturalen egoera aztertzen du eta bere analisiaren arabera Hego Koreak —Taiwaneko ikasketa kulturalen antzera— Europako erdialdeko eta ekialdeko kulturaren/kulturen ikerketetan aplika daitezkeen antzekotasunak ditu (ikus, halaber, Kang-en “There is No Sou; Europako erdialdeari eta ekialdeari buruz gehiago jakiteko, ikus, adib. Guran; Tötösy de Zepetnek, “Comparative Cultural Studies and the Study of Central European Culture”). Kangek nabarmentzen du 1980ko hamarkadaren hasieran Hego Koreak mendebaldeko ikasketa kulturalen teoriak hartu, bereganatu eta aplikatu zituela eta, bere iritziz, beharrezkoa da XXI. mendeko ikasketa kulturalak sustatzea. Era berean, deskribatzen du Taiwanen —ikasketa kulturalak 1993an instituzionalizatzen hasi zen herrialdea— ikasketa kulturalak bertako mugimendu demokratikoari oinarri teoriko bat eskaini ziola nortasun politikei buruzko ikerketak martxan jartzeko, gutxiengoen eta genero kontuei, Japoniaren eta AEBen kolonizaziori zein Taiwaneko jatorrizko biztanleen eta Txinatik etorritako etorkinen arteko harremanei buruzkoak. Ikasketa kulturalek munduko beste leku batzuetan duten egoerari dagokionez, beharrezkoa da adibide zehatz bat aipatzea: Latinoamerikako ikasketa kulturalak, hain zuzen ere, bertako herrialdeen bilakaera lehenik eta behin Europako hegemonia kulturaletik eta geroago AEBtik emantzipatzeko mugimenduan oinarritu delako. Hori dela eta, bertako ikasketa kulturalak Europako erdialde eta ekialde postkomunistakoaren antzeko itxura du maiz, zenbait gairi dagokionez: barneratze kulturalaren fenomenoa, zentsura  eta autozentsura, herri erresistentzia adierazteko modu sinbolikoa, kultura nazionalen definizioa eta boterereari buruzko eztabaiden analisiak (ikus adib. McClennen eta Fitz; McRobbie;

Moreiras; Jordan eta Morgan-Tomasunas). Marjorie Ferguson eta Peter Golding-ek, *Cultural Studies in Question* liburukiaren sarreran, kritikatzen dute inperio sobietar zaharra desegin zenetik ez direla enpirikoki aztertu politika, ekonomia eta komunikabideen arloko politika nazional eta globalen egiturazko aldaketak, globalizazioaren ondorioak eta demokratizazio prozesua (ikuspuntu hori bat dator Tötösy de Zepetnek-en ikasketa kultural konparatuen molde eta metodologiarekin —"kostestuala" eta "enpirikoa"— ikus behean). Liburuki berean, John D.H. Downing-ek proposatzen du komenigarria dela Europako erdialdean eta ekialdean eta Errusian trantsizio ekonomiko, politiko eta kulturala argitzeko ikasketa kulturalen gaitasuna ikertzea eta, alderantziz, trantsizio horien inplikazioak aztertzea, adituek ikasketa kulturalen erabilgarritasuna ebaluatzeko bitarteko ezin hobea baitira. Diziplinek gizartea eta boterea, gatazka eta aldaketa komunikazioaren analisian integratu beharko lituzketela azpimarratzen du eta, batik bat, beharrezkoa dela eliteetatik at beste agente batzuen garrantziari kasu egitea, hots, barruko presioetatik abiatuta aldaketa politikoa eragin duen herri kulturaren rola aztertzea. Bestetik, Dowlingek dio Hego Afrika, Hego Korea, Taiwan, Latinoamerika eta Hego Europak antzeko trantsizioak izan dituztela eta konparatzeko unean kontuan hartu beharko genituzkeela. *Cultural Discourse in Taiwan* liburukian, autoreek azpimarratzen dute Taiwan —bere lehenaldi koloniala eta ondare kulturalaren aniztasuna direla-eta— "mendebaldea eta ekialdea modu espezifiko eta zoragarrian bateratzeko prozesu kulturalen dinamiken" erakusgarri dela (Cheng, Wang, Tötösy de Zepetnek 1). Hego Koreari dagokionez, Myungkoo Kang-ek "East Asian Modernities" bere artikuluan ikasketa kulturalen egoera aztertzen du eta bere analisiaren arabera Hego Koreak —Taiwaneko ikasketa kulturalen antzera— Europako erdialdeko eta ekialdeko kulturaren/kulturen ikerketetan aplika daitezkeen antzekotasunak ditu (ikus, halaber, Kang-en "There is No Sou; Europako erdialdeari eta ekialdeari buruz gehiago jakiteko, ikus, adib. Guran; Tötösy de Zepetnek, "Comparative Cultural Studies and the Study of Central European Culture"). Kangek nabarmentzen du 1980ko hamarkadaren hasieran Hego Koreak mendebaldeko ikasketa kulturalen teoriak hartu, bereganatu eta aplikatu zituela eta, bere iritziz, beharrezkoa da XXI. mendeko ikasketa kulturalak sustatzea. Era berean, deskribatzen du Taiwanen —ikasketa kulturalak 1993an instituzionalizatzen hasi zen herrialdea— ikasketa kulturalak bertako mugimendu demokratikoari oinarri teoriko bat eskaini ziola nortasun politikei buruzko ikerketak martxan jartzeko, gutxiengoen eta genero kontuei, Japoniaren eta AEBen kolonizaziori zein Taiwaneko jatorrizko biztanleen eta Txinatik etorritako etorkinen arteko harremanei buruzkoak. Ikasketa kulturalek munduko beste leku batzuetan duten egoerari dagokionez, beharrezkoa da adibide zehatz bat aipatzea: Latinoamerikako ikasketa kulturalak, hain zuzen ere, bertako herrialdeen bilakaera lehenik eta behin Europako hegemonia kulturaletik eta geroago AEBtik emantzipatzeko mugimenduan

oinarritu delako. Hori dela eta, bertako ikasketa kulturalak Europako erdialde eta ekialde postkomunistakoaren antzeko itxura du maiz, zenbait gairi dagokionez: barneratze kulturalaren fenomenoa, zentsura eta autozentsura, herri erresistentzia adierazteko modu sinbolikoa, kultura nazionalen definizioa eta boterear buruzko eztabaiden analisiak (ikus adib. McClennen eta Fitz; McRobbie; Moreiras; Jordan eta Morgan-Tomasunas).

Ikasketa kulturaleko azken aurrerapausoek zientzia kognitiboa, emozioak, komunikazioa, komunikabideak eta memoria kontuan hartu dituzte (ikus adib. Zunshine; Highmore; Nalbatian, Matthews, McClellan). Bestetik, ikasketa kulturalak aurrerapauso esanguratsuak eman ditu giza zientzia digitaleko lan teoriko eta praktikoetan, eta ikertzeko zein argitaratzeko teknologia berriei erreparatu die (ikus adib. Landow; McCarty; Schreibman, Siemens, Unsworth; Tötösy de Zepetnek, 2010, 2007; Van Dijck; Van Peer, Asimakopoulou, Bessis).

## 2.1 Ikasketa kultural italiar-amerikarrak eta italiarrak ingelesez

Ezinezkoa da ikasketa kultural italiarrak eta italiar-amerikarrak elkarrengandik bereiztea, bien jatorria AEB delako (ikus adib. Tamburri, Giordano, Gardaphe; Benedetti, Harston, Ross; Boelhower eta Pallone; Parati eta Lawton; Tamburri, Ruthenberg, Parati, eta Lawton; Sorrentino eta Krase; Giunta eta Zambini McCormack; Europako beste herrialde batzuetako literatura konparatuaren eta ikasketa kulturalen egoerari buruz gehiago jakiteko, ikus adib. Tötösy de Zepetnek eta Mukherjee). Diaspora italiarra —herrialdearen barnekoa, iparraldera doazen hegoaldeko italiarrena, zein kanpokoa, atzerrira doazenena—, Italiara joateko migrazioa eta artista (im)migranteen ekoizpen literario eta zinematikoa adituak etengabe erakarri dituzten gaiak dira (ikus adib. Hoster Camaiti; Torgovnick; Parati; Serra; LaGumina; Del Guidice; Gnisci; Pojman). Peter S. Dombroskik ikasketa kultural italiar zehatzari buruz 1998an idatzi zuen *Annali d'Italianistica* lanaren sarreran zuzen esan zuen ikasketa kultural italiarra artean bere haurtzaroan zegoela eta bilakaera batik bat Italiatik kanpo gertatu zela (1998: 11; arloaren historiaurreari buruz, tradizio filologiko italiarretik Antonio Gramsci zilegizko aurrekariaren rolerarino, ikus, halaber, Stajano eta Angelini; Stampino Galli, Buttigieg; Forgacs eta Lumley; Barlera). 2006an, Anthony Julian Tamburrik azpimarratu zuen arloak, “Americans of Italian descent” kreazioak, ez duela Italian inongo interesik pizten (2006: 720, ikus Tamburriren artikulua italo-amerikar, italiar amerikar eta italiar/amerikar terminoen zuzentasunari buruz, marratxo eta barratxoarekin edo gabe, azken berrehun urteotan AEBra immigratu zuten sei milioi lagunen hogeita hamar milioi ondorengo inguruari buruz hitz egiteko). Ikasketa kulturalek ikasketa italiarrei hain denbora luzez zergatik eragin ez ote dieten azaltzeko, Dombroskik gizarte

italiar homogeneoarekin batera intelektualik immigratu ez izana arguaditzen du (1998: 11-12). Beste alde batetik, Ipar Amerikan (AEB eta Kanada) Modern Languages Association of Americak 2010ean *Teaching Italian American Literature, Film, and Popular Culture* argitaratu zuen eta, horren bitartez, arloak behin betiko estatus kanonikoa eskuratu du eta sortutako katedra ugariek hori frogatu dute. 2010ean Dartmoth Collegen ospatu zen Ikasketa Kultural Italiarriei buruzko Jardunaldian hitzaldi asko egon ziren, ez bakarrik AEBn lan egiten ari ziren adituenak, baizik eta baita Italiako askorenak ere, italiar-amerikar ikasketek bertan geroz eta pisu handiagoa baitute (ikus Pietralunga). Goian aipatu argitalpenen korpusean literatura ikasketen nagusitasuna nabari da eta hurrena estereotipo kulturalen (batik bat pelikula eta telebistan) eta herri kulturaren txanda da. Hala ere, ikasketa kulturalen gaien zerrenda askoz luzeagoa da eta ahozko historia, politikak eta historia, klaseei buruzko kontzeptu kritikoa, jatorri etnikoa eta komunitatea biltzen ditu. Bestetik, —eta hori oso garrantzitsua da italiar kulturan— erregionalismoa barne hartzen du, baita hizkuntza estandarraren politikekin lotutako kontuak versus dialektoak ere, eta generoari eta *queer*-ari buruzko ikasketa jakin batzuk, Josephine Gattuso Hendinek “inklusiboagoa den diskurtso etnikoa” izendatu zuen lan-ildoari jarraiki (2001: 57; ikus, halaber, Birnbaum; Bondalella; Carnevale; Gardaphé; Guglielmo; Guglielmo eta Salerno; Jeffries Miceli; Reich; Spackman; West). Aipagarria da italiar-kanadar literaturari buruzko Kanadako ikerketa-saila, Kanadako gutxiengo etnikoaren literaturaren korpus handiarekin eta haren ikerketa-sailarekin batera, ikus Tötösy de Zepetnek, Sayed, Beneventi).

## 3. Ikasketa kultural konparatuen arloa

Ikasketa kulturalak, berritzailea eta giza eta gizarte-zientzien oinarrizko arloa den aldetik, desabantaila bat du eta hori haren egitura elebakarra da, aipatu arloa mundu anglofonoan garatu eta aplikatzen baita batik bat, oro har bi hizkuntzekin lan egiten duten adituen eskutik. Terminoa literatura konparatuko marka errejistratua izan den aldetik eta zenbait hizkuntzekin batera jarduten duenez gero, “ikasketa kultural konparatu” gisa sailkatu behar genuke. Steven Tötösy de Zepetnekek 1980ko hamarkadaren amaieran bultzatu zuenetik, ikasketa kultural konparatuen kontzeptualizazioa literatura konparatuaren diziplinako printzipioen —ken diziplinaren eurozentrismoa eta nazio-orientazioa, goian aztertu dugun moduan— eta ikasketa kulturalen arteko “bategitea” da, bigarrenaren ikuspuntu ideologiko esplizitua alde batera utzi gabe. Ikasketa kultural konparatuen beste printzipio batzuek prozesu kulturalen “nola” galderari erreparatzen diote, eta, horren atzetik, muturreko konstruktibismoa dator (ikus adib. Riegler; Schmidt, “From Literary

Studies” *Kognitive Autonomie*; ikus, halaber, honako aldizkaria: *CLCWeb: Comparative Literature and Culture* <http://docs.lib.purdue.edu/clcweb> eta Books in Comparative Cultural Studies-en baitan argitaratutako serie monografikoak, biak ala biak Purdue University Pressek argitaratuak, eta Shaker Press-ek Books in Culture, Media, and Communication Studies-en testuinguruan argitaratutako serie monografikoak). Aztergaia ez da, maiz, berezko produktu kulturala, mikro eta makrosistem(ar)en baitan dauden prozesuak baizik, kultura ikertzeko interesgarriak (makrosistemari buruz ikus adib. Wallerstein; mikrosistemari buruz ikus adib. Schmidt; Even-Zohar; Tötösy de Zepetnek). “Konparatzeak” ez du —ezin du— hierarkia inplikatzen, hots, analisi konparatibo eta kontestual batean erabiltzen den metodoa aztergaia bera baino garrantzitsuagoa da. Beste kultura batzuei erreparatzea ikasketa kultural konparatuko metodologiaren oinarrizko elementu eta faktorea da. Printzipio horrek kultura eta diziplina arteko elkarrizketa sustatzen du, espresuki ideologikoa, eta, zentzu horretan, ikasketa kulturalen parekoa da. Elkarrizketa inklusioa da eta Beste guztiraino hedatzen da, baztertutako kontuetaraino, gutxiengoetaraino; hori guztia periferikotzat jo dugu eta jotzen dugu, maiz, gaur egun ere. Adituentzat aproposena ikasketa kultural konparatuen arloan lan egitea da, zenbait hizkuntzen, diziplinen eta kulturen lan-ezagutza eduki ahal izateko, teoria eta metodologia aztertzen hasi aurretik.

Ikasketa kultural konparatuak kultura du aztergai, zatika (literatura, pelikulak, herri kultura, ikusizko arteak, telebista, komunikabide berriak, etab.) nahiz beste giza adierazpide eta jarduera modu batzuekin eta giza eta gizarte-zientzien esparruko diziplinekin lotuta dagoen gai orokor gisa. Gerturapen horrek analisi kultural kontestual osoa ahalbidetzen du. Ikasketa kultural konparatuak ingelesa darabil ikerketa-sailen, komunikazioaren, negozioen, teknologien etab.-en *lingua franca* gisa. Hala eta guztiz ere, ingelesak ikerketen argitalpenetan duen pisuak —berez ere eztabaida teoriko askoren iturria— ez du Europan eta AEBn zentratutako ikuspuntuarekin inongo zerikusirik (ikus adib. Ramanathan; Rubdy; Prendergast, Catherine; Young). Aitzitik, ikerketa ororen nazioarteko hizkuntza orokorra ingelesa izateak herrialde anglofonoetan bizi ez diren eta Europa kontinentalekoak diren adituei aukera ematen die beren lanak nazioarteko forumean aurkezteko eta beste herrialde batzuetako lankideekin elkar ulertzeko. Ikasketa kultural konparatua ebidentzietatik abiatutako ikerketa eta analisian oinarritzen da eta, testuinguru horretan, gerturapen „kontestualak“ (sistematikoa eta enpirikoa) metodologia eta molde probetxuzkoenak eskaintzen ditu (honi buruz gehiago jakiteko ikus adib. Ferguson-en eta Golding-en argudioak azterketa enpirikoen alde, ikus goian; ikus, bereziki, Schmidt). Ikasketa kultural konparatuak diziplina arteko ikerketa barne hartzen duen metodologia azpimarratzen du eta hiru metodologiatan oinarrituta dago: intra-diziplinatasuna (giza zientzien

baitako diziplinen analisi eta ikerketa), multi-diziplinatasuna (beste edozein diziplina darabilen aditu baten analisi eta ikerketa) eta pluri-diziplinatasuna (diziplina ezberdinetako parte-hartzaileak dituen talde-lanean oinarritutako analisi eta ikerketa). (Tötösy de Zepetnek, 1998: 79-120). Ikasketa kultural konparatua giza zientzia globalen diziplina inklusiboa da eta, horrenbestez, globalizazioa versus lokalizazioa paradoxaren aurkakoa da. Amaitzeko, ikasketa kultural konparatua giza zientzien eta beren bazterkeriaren gainbehera intelektual eta instituzionala eteten ahalegintzen da eta giza eta gizarte-zientzien ikerketen esanguraren alde egiten du. Hona hemen ikasketa kultural konparatuaren definizio laburra:

> comparative cultural studies is the theoretical, as well as methodological postulate to move and dialogue between cultures, languages, literatures, and disciplines. This is a crucial aspect of the framework, the approach as a whole, and its methodology. In other words, attention to other cultures — that is, the comparative perspective — is a basic and founding element and factor of the framework. The claim of emotional and intellectual primacy and subsequent institutional power of national cultures is untenable in this perspective. In sum, the built-in notions of exclusion and self-referentiality of single-culture study, and their result of rigidly-defined disciplinary boundaries, are notions against which comparative cultural studies offers an alternative as well as a parallel field of study. This inclusion extends to all Other, all marginal, minority, border, and peripheral entities, and encompasses both form and substance. However, attention must be paid to the "how" of any inclusionary approach, attestation, methodology, and ideology so as not to repeat the mistakes of Eurocentrism and "universalization" from a "superior" Eurocentric point of view. Dialogue is the only solution. (Tötösy de Zepetnek, 2003: 259; ikus, halaber, Tötösy de Zepetnek, "The New Humanities"; komunikabide eta komunikazio ikasketak barne hartzen dituen kontzeptuaren bilakaera berriari buruz gehiago jakiteko ikus Lisiak, Urban Cultures; Tötösy de Zepetnek eta López-Azcárate)

Giza zientziek edonon finantzaketarekin eta esangura sozialarekin lotutako egoera zailari —historian zehar beste hainbeste— aurre egin behar dioten arren, teknologia berriekin eta internetekin eta komunikatzeko maiztasunaren eta zabalkundearen bilakaerarekin ikerketetarako aukera berriak agertu dira. Eta giza zientziak, oro har, beren ikerketetako eta pedagogiako erabileran teknologia berriak aplikatzen motelak diren arren, literatura konparatua —diziplina-artekotasunaren izaera intrintsekoa dela-eta— giza zientzien hertsapenerako joera eta presentzia geroz eta urriagokoari aurre egiteko *locus* naturala da. Ikasketa kulturaletan, giza zientzia digitala aurrerapauso garrantzitsua da, teorian zein praktikan, eta, hortaz, ikasketa kultural konparatuek giza zientzia digitala haien printzipio garrantzitsuenetarikotzat dute (ikus adib. Lisiak eta Tötösy de Zepetnek; López-Varela Azcárate eta Tötösy de Zepetnek [artikulu honetan, ikus, halaber, ikasketa kulturalak Frantzian duen egoerari buruzko eztabaida bat]; Tötösy de Zepetnek, 1998, 2010, 2007a, 2007b; Tötösy de Zepetnek eta López-Varela Azcárate). Aipatzeko

moduko azken kontu bat giza zientzietako adituek online argitaratzeari dagokionez duten jarrera negatibo harrigarria da, eta oso gutxi idatzi izan da, paperean, gai horri buruz: salbuespen esanguratsuak dira George P. Landow, bere *Hypertext 03: Critical Theory and New Media in an Era of Globalization* lanean egoera bitxi eta zentzugabe horri buruz jarduten duena, eta Geert Lovink bezalakoek diotena:

> By and large, the humanities have been preoccupied with the impact of technology from a quasi-outsider's perspective, as if society and technology can still be separated (*Dark Fiber*, 13). This resistance by humanities scholars appears in two characteristic reactions to the proposition that information technology constitutes a crucial cultural force. First, one encounters a tendency among many humanists contemplating the possibility that information technology influences culture to assume that before now, before computing, our intellectual culture existed in some pastoral non-technological realm. *Technology*, in the lexicon of many humanists, generally means "only that *technology* of which I am frightened" have frequently heard humanists use the word technology to mean "some intrusive, alien force like computing," as if pencils, paper, typewriters, and printing presses were in some way *natural* (Lovink, qtd. In Landow, 2006: 46).

Giza zientzien gaur egungo testuinguruan, aditu eta irakasleen belaunaldi gazteak dira teknologia berriek kultura eta literaturaren azterketan duten garrantzia ulertzen dutenak —gaur egun arte aditu zahar eta finkatuen babesik gabe— eta, dirudienez, luze itxaron beharko dugu giza zientzietan ikuspuntu berria topatzeko eta haiek beren babes osoa emateko pareko lankideen ebaluazioa jaso duten aldizkarietan, online, testu osoak, eta —hori da zinez esanguratsua— sarbide publikoko aldizkarietan argitaratzeko. Ikerketa-sailetatik hurbil dagoen edozerk online argitaratuko balu, horrek giza zientzia konparatua mapan kokatu ahalko luke berriro, mundu mailan, gainera. Ikasketa kultural konparatuen beste arlo garrantzitsu bat itzulpena da, ikerketa-sailen testuinguruan, oro har, oraindik ere nahiko garrantzi eskasa duen arloa (horri buruz gehiago jakiteko, ikus Tötösy de Zepetnek, 2002, 1995).

Laburbilduz, uste dugu literatura eta kultura aztertzeko —gaur egungo ikerketeten jarduera sozial esanguratsu gisa— lan kontestualera eta ebidentzian oinarriturikora jo behar dugula, graduatuek beren lan-egoerari dagokionez duten pragmatikotasuna ahaztu gabe. Horrek ez du esan nahi literaturaren azterketa tradizionalak, testuen irakurketa zehatzean oinarritutako ikerketa darabilenak, balio gutxiago duenik; are gehiago, biak sustatu behar ditugu, modu paraleloan. Literatura konparatua eta ikasketa kultural konparatua gerturapen konparatuaren oinarrizko printzipioetan oinarritzen dira eta diziplina-artekotasunari erreparatzen diote. Era berean, teknologia berrien abantailez baliatzeak presentzia globala eta esangura soziala eragin ahalko lituzke eta eragingo lituzke, zalantzarik gabe.

## Bibliografia

BASSNETT, S. (1993): *Comparative Literature: A Critical Introduction*, Oxford: Blackwell.
BATHRICK, D. (1992): “Cultural Studies”, in Gibaldi, J. (ed.): *Introduction to Scholarship in Modern Languages and Literature*, New York: Modern Language Association of America, 320-40
BERUBÉ, M. (ed.) (2005): *The Aesthetics of Cultural Studies*, Oxford: Blackwell.
BIRNBAUM CHIAVOLA, L. (1993): *Black Madonnas: Feminism, Religion and Politics in Italy*, Boston: Northeastern UP.
BIRUS, H. (1999): “Main Features of Goethe’s Concept of World Literature”, in Tötösy de Zepetnek, S., Dimić, M. and Sywenky, I. (eds.), *Comparative Literature Now: Theories and Practice / La Littérature comparée à l’heure actuelle. Théories et realisations*, Paris: Honoré Champion, 31-41.
BLAIR, W. (1940): *The History of World Literature*, Chicago: University of Knowledge Inc.
BOHME, H. and SCHERPE, K. (eds.) (1996): *Literatur und Kulturwissenschaften. Positionen, Theorien, Modelle*, Reinbek bei Hamburg: Rowohlt.
BOHME, H., MATUSSEK, P. and MULLER, L. (eds.) (2000): *Orientierung Kulturwissenschaft. Was sie kann, was sie will*, Reinbek bei Hamburg: Rowohlt.
CARUTH, C., and CULLER, J. (eds.) (2010): *Literary Criticism for the Twenty-first Century. Special issue PMLA: Publications of the Modern Language Association of America*, 4, vol. CXXV, 899-1152.
CHALARD-FILLAUDEAU, A. (ed.) (2010): *Etude et sciences de la culture: une résistance française?*, Special Issue *Revue d’Etudes Culturelles*, 5, 1-181.
CHENG, C., WANG, I. and TÖTÖSY DE ZEPETNEK, S. (eds.) (2009): *Cultural Discourse in Taiwan*, Kaohsiung: National Sun Yat-sen U., Humanities and Social Sciences Series.
COULDRY, N. (2000): *Inside Culture: Re-imagining the Method of Cultural Studies*, London: Sage.
DAMROSCH, D. (2003): *What Is World Literature?*, Princeton: Princeton UP.
DAMROSCH, D. (2009): *How to Read World Literature*, Chichester: John Wiley & Sons.
DAVIS, G., MARSDEN, P., LEDENT, B. and DELREZ, M., (eds.) (2005): *Towards a Transcultural Future: Literature and Society in a “Post”-Colonial World*, Amsterdam: Rodopi.
DENHAM, S., KACANDES, I., and PETROPOULOS, J. (eds.) (1997): *A User’s Guide to German Cultural Studies*, Ann Arbor: U. of Michigan P.
DETIENNE, M., (2008): *Comparing the Incomparable*, Trans. LLOYD, J. Stanford: Stanford UP.
DOWNING, J. D.H. (1997): “Cultural Studies, Communication and Change: Eastern Europe to the Urals”, in Ferguson, M. and Golding, P. (eds.), *Cultural Studies in Question*, London: Sage, 187-204.
EVEN-ZOHAR, I. (1990): *Polysystem Studies, Special Issue of Poetics Today*, 1, vol. XI, 12-68.
FINNEY, G. (2008): “Elitism or Eclecticism? Some Thoughts about the Future of Comparative Literature”, *Symploke: a journal for the intermingling of literary, cultural, and theoretical scholarship*, 1-2, vol. XVI, 215-25.
FERGUSON, M., and GOLDING, P. (1997): “Cultural Studies and Changing Times: An Introduction”, in Ferguson, M. and Golding, P. (eds.), *Cultural Studies in Question*, London: Sage, XIII-XXVII
FORBES, J. and KELLY, M. (eds.) (1996): *French Cultural Studies: An Introduction*, Oxford: Oxford UP.
FORGACS, D. and LUMLEY, R. (eds.) (1996): *Italian Cultural Studies: An Introduction*, Oxford: Oxford UP.

FORGACS, D. and LUMLEY, R. (eds.) (1996): *Italian Cultural Studies: An Introduction*, Oxford: Oxford UP.
FRANCO, J. (2007): “Cultural Studies”, in Gibaldi, J. (ed.), *Introduction to Scholarship in Modern Languages and Literatures*, New York: Modern Language Association of America, 209-24.
FREDRICKSON, G. M. (1997): *The Comparative Imagination: On the History of Racism, Nationalism, and Social Movements*, Berkeley: U. of California P.
FRESE WITT, M. A. (2007): *La Recherche en littérature générale et comparée en France en 2007: Bilan et perspectives*, Le Mont-Houy: P. U. de Valenciennes.
FROW, J. and MORRIS, M. (eds.) (1993): *Australian Cultural Studies: A Reader*, Sydney: Allen & Unwin.
GALLAGHER, M. (ed.) (2008): *World Writing: Poetics, Ethics, Globalization*, Toronto: U. of Toronto P.
HYDE, G. M. [GMH] (2005): “Comparative Literature”, in Childs, P. and Fowler, R. (eds.): *The Routledge Dictionary of Literary Terms*, London: Routledge, 29-31.
GRAHAM, H., and LABANYI, J. (eds.) (1996): *Spanish Cultural Studies: An Introduction: The Struggle for Modernity*, Oxford: Oxford UP.
GROSSBERG, L., NELSON, C. and TREICHLER, P. (eds.) (1992): *Cultural Studies*, New York: Routledge.
GROSSBERG, L. (1998): “The Cultural Studies Crossroads Blues”, *European Journal of Cultural Studies*, 1, vol. I, 65-82.
GUPTA, S. (2009): *Globalization and Literature*, Cambridge: Polity.
GURAN, L. (2006): “US-American Comparative Literature and the Study of East-Central European Culture and Literature”, *CLCWeb: Comparative Literature and Culture*, 1, vol. XVIII, <http://docs.lib.purdue.edu/clcweb/vol8/iss1/7/>, [24/05/11].
HALL, D. E. (ed.) (2001): *Professions: Conversations on the Future of Literary and Cultural Studies*, Urbana: U. of Illinois P.
HENDIN GATTUSO, J. (2001): “The New World of Italian American Studies”, *American Literary History*, 1, vol. XIII, 141-57.
HIGHMORE, B. (2009): *A Passion for Cultural Studies*, Houndmills: Palgrave MacMillan.
HORAK, R. (1999): “Cultural Studies in Germany (and Austria) and Why There is No Such Thing”, *European Journal of Cultural Studies*, 1, vol. II, 109-15.
JEFFRIES MICELI, G. (1994): *Feminine Feminists: Cultural Practices in Italy*, Minneapolis: U. of Minnesota P.
JORDAN, B. and MORGAN-TAMOSUNAS, R. (eds.) (2000): *Contemporary Spanish Cultural Studies*, London: Arnold.
KANG, M. (2004): “East Asian Modernities and the Formation of Media and Cultural Studies”, in Dowling J. D. H. (ed.), *The Sage Handbook of Media Studies*, Thousand Oaks: Sage, 271-88.
KANG, M. (2004): “There is No South Korea in South Korean Cultural Studies: Beyond the Colonial Conditions of Knowledge Production”, *Journal of Communicative Inquiry*, 3, vol. XXVIII, 253-68.
KELLY, C., and SHEPHERD, D. (eds.) (1998): *Russian Cultural Studies: An Introduction*, Oxford: Oxford UP.
KENNEDY, M. D. (1994): *Envisioning Eastern Europe: Postcommunist Cultural Studies*, Ann Arbor: The U of Michigan P.
KITTLER, F. (2001): *Eine Kulturgeschichte der Kulturwissenschaft*, München: Fink.

KRISHNASWAMY, R. (2010): “Toward World Literary Knowledges: Theory in the Age of Globalization”, *Comparative Literature*, 4, vol. LXII, 399-419.
LANDOW, G. P. (2006): *Hypertext 3.0: Critical Theory and New Media in an Era of Globalization*, Baltimore: The Johns Hopkins UP.
LAWALL, S. (ed.) (1994): *Reading World Literature: Theory, History, Practice*, Austin: U. of Texas P.
LE HIR, M. P. and STRAND, D. (eds.) (2000): *French Cultural Studies: Criticism at the Crossroads*, Albany: State U. of New York P.
LEE, A. and POYNTON, C. (eds.) (2000): *Culture & Text: Discourse and Methodology in Social Research and Cultural Studies*, Lanham: Rowman & Littlefield.
LEE, R. (2003): *Life and Times of Cultural Studies: The Politics and Transformation of the Structures of Knowledge*, Durham: Duke UP.
LIONNET, F. and SHIH, S. (eds.) (2005): *Minor Transnationalism*, Durham: Duke UP.
LISIAK, A.A. (2010): *Urban Cultures in (Post)Colonial Central Europe*, West Lafayette: Purdue UP.
LÓPEZ-VARELA AZCÁRATE, A., and TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. (2010): “*Comparative Cultural Studies*, éducation, nouveaux médias et l’interculturalisme”, in Chalard-Fillaudeau, A. (ed.), *Etudes et sciences de la culture. Une résistance française?* Special Issue *Revue d’Etudes Culturelles*, vol. V, 73-96.
McCARTHY, C. et al. (eds.) (2007): *Globalizing Cultural Studies: Ethnographic Interventions in Theory, Method, and Policy*, New York: Peter Lang.
McCARTY, W. (ed.) (2010): *Text and Genre in Reconstruction*, Cambridge: Open Book Publishers.
McCLENNEN, S. and FITZ, E. (eds.) (2004): *Comparative Cultural Studies and Latin America*, West Lafayette: Purdue UP.
McROBBIE, A. (2005): *The Uses of Cultural Studies*, London: Sage.
MOORE, P. (2001): “European Cultural Studies”, in Moore, T. (ed.), *A Companion to Cultural Studies*, Oxford: Blackwell, 298-314.
MOREIRAS, A. (2001): *The Exhaustion of Difference: The Politics of Latin American Cultural Studies*, Durham: Duke UP.
NALBATIAN, S. et al. (eds.) (2010): *The Memory Process: Neuroscientific and Humanistic Perspectives*, Cambridge: MIT P.
PINXTEN, Rik. (2007): “Contemporary Cultural Studies: Theory, Contexts and Trends”, *Tribes and Tribals*, Special Issue *Tribes and Tribals*, I, 93-99.
PIREDDU, N. (2009): “Between the Local and the Global: Comparative Literature in the Land of Dante”, *Recherche Littéraire / Literary Research*, vol. XXV, 26-33.
PIZER, J. (2006): *The Idea of World Literature: History and Pedagogical Practice*, Baton Rouge: Louisiana State UP.
PRENDERGAST, C. (ed.) (2004): *Debating World Literature*, London: Verso.
PRENDERGAST, C. (2008): *Buying into English: Language and Investment in the New Capitalist World*, Pittsburgh: U of Pittsburgh P.
PROW, J. (2007): “Australian Cultural Studies”, *Postcolonial Studies*, 1, vol. X, 59-75.
RAMANATHAN, V. (2005): *The English-Vernacular Divide: Postcolonial Language Politics and Practice*, Clevedon: Multilingual Matters.
REICH, J. (2004): *Beyond the Latin Lover: Marcello Mastroianni, Masculinity and Italian Cinema*, Bloomington: Indiana UP.
REYNOLDS, S. and KIDD, W. (2000): *Contemporary French Cultural Studies*, Oxford: Oxford UP.

RIEGLER, A.: *Radical Constructivism*, <http://www.radicalconstructivism.com>, [25/05/2011].
ROJEK, C. (2007): *Cultural Studies*, Cambridge: Polity P.
RUBDY, R. and SARACENI, M. (2006): *English in the World*, New York: Continuum.
SAUSSY, H. (2006): “Exquisite Cadavers Stitched from Fresh Nightmares: Of Memes, Hives, and Selfish Genes”, in Saussy, H. (ed.), *Comparative Literature in an Age of Globalization*, Baltimore: The Johns Hopkins UP, 3-42.
SCHMIDT, S.J. (2010): “Literary Studies from Hermeneutics to Media Culture Studies”, *CLCWeb: Comparative Literature and Culture*, 1, vol. XII, <http://docs.lib.purdue.edu/clcweb/vol12/iss1/1>, [25/05/2011].
SCHMIDT, S.J. (1994): *Kognitive Autonomie und soziale Orientierung. Konstruktivistische Bemerkungen zum Zusammenhang von Kognition, Kommunikation, Medien und Kultur,* Frankfurt: Suhrkamp.
SCHREIBMAN, S., SIEMENS, R. and UNSWORTH, J. (eds.) (2004): *A Companion to Digital Humanities*, Malden: Blackwell.
SIMONSEN, K.-M., and STOUGARD-NIELSEN, J. (eds.) (2008): *World Literature World Culture: History, Theory, Analysis*, Aarhus: Aarhus UP.
SPIVAK, G. Ch. (2003): *Death of a Discipline*, New York: Columbia UP.
STURM-TRIGONAKIS, E. (2007): *Global playing in der Literatur. Ein Versuch über die Neue Weltliteratur*, Würzburg: Königshausen & Neumann.
TAMBURRI, A. J. (ed.) (2006): *Italian Cultural Studies*, Boca Raton: Bordighera P.
TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. (1992): “Systemic Approaches to Literature: An Introduction with Selected Bibliographies”, *Canadian Review of Comparative Literature / Revue Canadienne de Littérature Comparée* 1-2, vol. XIX, 21-93.
TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. (1995): “The *Systemic and Empirical Approach to Literature*, the *Polysystem Theory*, and Translation Theory: The Importance of Methodology”, *Studies in the Humanities*, 1-2, vol. XXII, 12-20.
TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. (1998): *Comparative Literature: Theory, Method, Application*, Amsterdam: Rodopi.
TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. (1999): “Taxonomy for the Study of Translation in Comparative Cultural Studies”, *CLCWeb: Comparative Literature and Culture (Library)*, <http://docs.lib.purdue.edu/clcweblibrary/ccstranslationstudies>, [25/06/2011].
TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. (2002): “Comparative Cultural Studies and the Study of Central European Culture”, in Tötösy de Zepetnek, S. (ed.): *Comparative Central European Culture*, West Lafayette: Purdue UP, 1-32.
TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. (2003): “From Comparative Literature Today toward Comparative Cultural Studies”, in Tötösy de Zepetnek, S. (ed.), *Comparative Literature and Comparative Cultural Studies*, West Lafayette: Purdue UP, 235-267.
TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. (2007a): “The New Humanities: The Intercultural, the Comparative, and the Interdisciplinary”, in Ziolkowski, J. M. and López, A. J. (eds.), *Globalization and the Futures of Comparative Literature, Thematic Section of The Global South*, 2, vol. I, 45-68.
TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. (2007b): “Aspects of Scholarship and Publishing in the Age of New Media Technology”, in Sanz, A. and Romero, D. (eds.), *Literatures in the Digital Era: Theory and Praxis*, Newcastle upon Tyne: Cambridge Scholars Publishing, 171-184.
TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. (2009): “Bibliography for Work in Comparative Literature and Culture”, *CLCWeb: Comparative Literature and Culture (Library)*, <http://docs.lib.purdue.edu/clcweblibrary/clcbibliography>, [25/06/2011].

TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. (2010): “The ‘Impact Factor’ and Selected Issues of Content and Technology in Humanities Scholarship Published Online”, *Journal of Scholarly Publishing*, 1, vol. XLII, 70-78.
TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. (2011): “Shortlist of (Text)Books in Comparative Literature”, *CLCWeb: Comparative Literature and Culture (Library)*, <http://docs.lib.purdue.edu/clcweblibrary/comparativeliteraturebooks>, [25/06/2011].
TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. and LÓPEZ-VARELA AZCÁRATE, A., (2010): “Education, Interculturalism, and Mapping a New Europe”, in Tötösy de Zepetnek, S. and Wang, I. (eds.), *Mapping the World, Culture, and Border-crossing*, Kaohsiung: National Sun Yat-sen U., Humanities and Social Sciences Series, 38-49.
TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. and MUKHERJEE, T. (eds.) (2012, forthcoming): *The Cambridge Companion to Comparative Literature and Comparative Cultural Studies*, Cambridge: Cambridge UP.
TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. and VASVÁRI, L.O. (2012, forthcoming): “Comparative Literature, World Literature, Cultural Studies, and Comparative Cultural Studies”, in Tötösy de Zepetnek, S. and Mukherjee, T. (eds.), *The Cambridge Companion to Comparative Literature and Comparative Cultural Studies*. Cambridge: Cambridge UP.
TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. and VASVÁRI, L.O. (2012, forthcoming): “Synopsis of the Current Situation of Comparative Literature and (Comparative) Cultural Studies in the U.S. and Europe Including English-Language Italian Cultural Studies”, in Albertazzi, S. and Domenichelli, M. (eds), Special Issue *Multicultural Studies*, Moderna, 1, vol. XIII.
TURNER, G. (2003): *British Cultural Studies: An Introduction*, London: Routledge.
VAN DIJCK, J. (2010): “Search Engines and the Production of Academic Knowledge”, *International Journal of Cultural Studies*, 6, vol. XIII, 574-92.
VAN PEER, W., ASIMAKOPOULOU, E. and BESSIS, N. (eds.) (2010): *Literary Education and Digital Learning: Methods and Technologies for Humanities Studies*, Hershey: Information Science Reference.
WALLERSTEIN, I. (1982): “World-System Analysis: Theoretical and Interpretative Issues”, in Hopkins, T. K. (ed.), *World-System Analysis: Theory and Methodology*, Beverly Hills: Sage.
WANG, I., and TÖTÖSY de ZEPETNEK, S. (2009): “Introduction to *Cultural Discourse in Taiwan*”, in Cheng, C., Wang, I. and Tötösy de Zepetnek, S. (eds.), *Cultural Discourse in Taiwan*, Kaohsiung: National Sun Yat-sen U., Humanities and Social Sciences Series, 1-9.
WANG, N. (2001): “Confronting Globalization: Cultural Studies versus Comparative Literature Studies?”, *Neohelicon: acta comparationis litterarum universarum*, 1, vol. XXVIII, 56-65.
WHITE, M. and SCHWOCH, J. (eds.) (2006): *Questions of Method in Cultural Studies*, Malden: Blackwell.
YOUNG, R. J. C. (2009): “English and the Language of Others”, *European Review*, 1, vol. XVII, 203-212.
ZUNSHINE, L., (ed.) (2009): *Introduction to Cognitive Cultural Studies*, Baltimore: The Johns Hopkins UP.